BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

4108

EBAZPENA, 2012ko abuztuaren 21ekoa, Kontsumobideko zuzendariarena, toki-erakundeei eta horiek sustatutako entitateei 2012rako diru-laguntzak emateko dena, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak sustatu eta babes ditzaten.

Osasun eta Kontsumoko sailburuaren 2010eko otsailaren 17ko Aginduz, toki-erakundeei eta horiek sustatutako entitateei laguntzak ematea arautzen da, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak sustatu eta babesteko.

Kontsumobideko zuzendariaren 2011ko abenduaren 15eko Ebazpenaren bidez, toki-erakundeei eta horiek sustatutako entitateei –kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak sustatu eta babes ditzaten– ematen zaizkien laguntzetarako 2012ko deialdia egin zen.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen 4/2009 Dekretuak ezarritakoaren arabera, kontsumo arloa Osasun eta Kontsumo Sailari dagokio.

2011ko abenduaren 15eko Ebazpenaren 3. artikuluan ezartzen den epearen barruan, 35 entitatek aurkeztu zuten 2010eko otsailaren 17ko Aginduan aurreikusten diren laguntzak jasotzeko eskaria.

Kontuan hartu da 2012ko ekainaren 15ean –aurkeztutako eskariak aztertu eta ebaluatzeko– bildu zen Epaimahai Kalifikatzailearen proposamena.

Ondorioz, aipatutako xedapenak eta oro har eta bereziki aplikagarri diren gainerakoak ikusita, honako hau

XEDATZEN DUT:

1.– Kontsumitzailearentzako Informazio Udal Bulegoen (KIUB) funtzionamendu gastu eta ekitaldiak antolatzeko diru-laguntzak ematea: guztira, 859.170,66 euro, honela banatuta:

Andoaingo udala	18.411,25
Basauriko udala	39.115,31
Bilboko udala	60.000,00
Donostiako udala	37.554,97
Eibarko udala	20.306,91
Erandioko udala	29.924,28
Ermuko udala	17.451,27
Etxebarriko udala	15.674,62
Getxoko udala	29.088,00
Irungo udala	42.748,98
Lasarte-Oriako udala	20.858,67
Laudioko udala	22.443,21
Ortuellako udala	13.679,67
Portugaleteko udala	42.748,98
Santurtziko udala	42.748,98
Vitoria-Gasteizko udala	60.000,00
Zierbenako udala	2.362,30
Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua	23.690,05
Añanako Kuadrilla	2.992,42
Kanpezuko Kuadrilla-Arabako Mendialdea	3.163,42
Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla	11.271,48
Elgoibarko udala	7.114,21
Forlan	12.055,21
Goierriko Ekimena, S.A.	23.131,36
Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatua	29.614,07
Inguralde	60.000,00
Iraurgi Lantzen, S.A.	6.651,86
Lekeitioko udala	6.058,00
Urola Garaiko Mankomunitatea	23.747,05

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa	27.602,97
Enkarterriko Mankomunitatea	19.949,52
Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea	37.405,35
Oarsoaldea	42.748,98
Ondarroako udala	3.624,78
Tolosaldea Garatzen S.A.	3.232,53

2.– Kontsumitzailearentzako Informazio Udal Bulego (KIUB) izango diren zentro eta zerbitzuen instalazio, handitze eta ekipamendu gastuetarako edo kokapena aldatzeko diru-laguntzak ematea; guztira, 4.461,73 euro, honela banatuta:

Donostiako udala	982,80
Santurtziko udala	3.038,03
Kanpezuko Kuadrilla-Arabako Mendialdea	266,40
Tolosaldea Garatzen S.A.	174,50

3.– Kontsumitzailearentzako Informazio Udal Bulegoek (KIUB) ikuskapenak egiteko diru-laguntzak ematea; guztira, 79.999,87 euro, honela banatuta:

Bilboko udala	14.771,82
Erandioko udala	6.429,66
Irungo udala	9.977,55
Portugaleteko udala	10.192,55
Santurtziko udala	11.743,59
Vitoria-Gasteizko udala	14.771,82
Forlan	1.920,33
Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatua	10.192,55

4.– Administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osasun eta Kontsumo sailburuari, jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epearen barruan.

5.– Agindu hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 21a.

Kontsumobide zuzendaria,
ANA MARÍA COLLIA POSADA.